

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Behin betiko onartzea ibilgailuak gaitutako espazioetan eta kalean aparkatzeko Ordenantza.**

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak adierazten du Bilboko Udalak 2022ko martxoaren 31n egindako ohiko batzaraldian behin betiko onartu dela ibilgailuak gaitutako espazioetan eta kalean aparkatzeko ordenantza.

HITZAURREA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua, «Erregulazio onaren printzipioak» izenburutzat duena, honako hau adierazten du:

«1. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Zioen azalpenean edo atarikoan —lege-aurreproiektua den edo erregelamendu-proiektua— behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela».

Behar eta eraginkortasun printzipioak

Kaleko aparkalekuen erregulazioa, lur gainekoa nahiz sestra azpikoa, bai eta herri-jabariaren emakida erregimeneko egoiliarrentzako aparkalekuena ere, berebiziko garrantzia duen gaia da herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, hirian eragin nabarmena baitu, bizikidetza ordenatu eta baketsuko leku gisa.

Trafikoa, eta, beraz, aparkatzea, hiriaren oreka globalaren zati garrantzitsua da, eta, beraz, erregulazio harmoniatua lortu behar da, gainontzean hiria bera kolapsatu egingo baita.

Orain aurkezten den Ordenantzak unibertsaltasun bokazioa du aparkatzeari buruzko guztian, orain sakabanatuta dauden arlo horretako tresna arauemaileak biltzen, sistematizatzen eta laburbiltzen baititu: trafikoari eta aparkalekuari buruzko ordenantza (TAO/OTA), araututako kale-aparkamenduko sistema aplikatzeko lurralde-eremua arautzen duen ordenantza, Bilboko Eremu Intentsiboko ekipamendu-lurzoruetako egoiliarrentzako aparkalekuen ordenantza eta Egoiliarrei eta txandakako erregimenera bideratutako udal titulartasuneko aparkaleku-eraikinak arautzeko ordenantza.

Gure ustez, ez dago zalantzarik ordenantza dela lortu nahi diren helburuak bermatzeko tresnarik egokiena. Izan ere, ordenantzak eta erregelamenduak dira toki-erakundeek dituzten arau-tresna nagusiak, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikulua aitortzen dien erregelamenduak egiteko ahala gauzatzen dute.

Proportzionaltasun-printzipioa

Ordenantza egitasmoak arauarekin bete nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoa eta beharrezkoa den erregulazioa soilik jasotzen du, behin egiaztatu eta gero ez dagoela eskubideak gutxiago murriztuko dituen edo xede diren pertsonen betebeharrak gutxiago ezarriko dien beste neurririk.

Segurtasun juridikoaren printzipioa

Jakina denez, udalerriek, esleitura dituzten eskumenak garatzeko, besteak beste, araugintza-ahala dute, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.a) eta 84.a) artikuluen babesean. Zirkulazio-antolamenduaren esparruan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko



7/1985 Legearen 25.2 g) artikulua, honako eskumen hau aitortzen die udalerrii berezkozat: «g) Trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugikortasuna [...]».

Ahalmen orokor hori berriaz berresten dute Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7.b) eta 38.4 artikuluek, eta honela diote hitzez hitz:

7. artikulua. — Udalerrien eskumenak

«Lege honen esparruan, honako eskumen hauek esleitzen zaizkie udalerrii:

- a) Haien titulartasuneko hiri-barruko bideetan zirkulazioaren erregulazioa, antolamendua, kudeaketa, zaintza eta diziplina egitea, beren agenteen bitartez, bai eta bide horietan egindako arau-haustek salatu eta zehatzea ere, betiere hori ez badu beste administrazio batek berriaz esleituta.
- b) Zirkulazioko Udal Ordenantza bidez, hiri-barruko bideetako erabilerak erregulatzeko, betiere erabiltzaile guztien artean aparkalekuen bidezko banaketa egitea zein ibilgailuen zirkulazioaren beharrezko arintasuna lortzea xedetzat hartuta, bai eta oinezkoek kaleak erabili beharra ere; horrez gain, aparkaldi mugaturako neurriak ere ezartzea, aparkaldiak txandaka egingo direla bermatzeko. Eta bereziki erreparatuko diete desgaitasuna duten pertsonen beharrei —ibilgailuak erabiltzen dituzten eta mugikortasun urria dutenen beharrei, alegia—, halakoak gizarteratzen laguntzearen».

39. artikulua. — Gelditu eta aparkatzeko arau orokorrak

«[...]»

4. Hiri-barruko bideetan ibilgailuak ibilgetzea, ibilgailuok aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzea baimentzen duen titulurik ez daukatenean edota baimendutako denbora gainditzen dutenean, harik eta ibilgailuaren gidaria identifikatzen den arte. Ibilgailuak hiri-barruko bideetatik kentzea eta gordailuan uztea, zirkulazioa oztopatzen edo zailtzen badute, zirkulaziorako arriskua sortzen badute, edota aparkaldi mugatuko eremuetan gaizki aparkatuta badaude, betiere ibilgailuak ibilgetzeko artikulua honetan ezarritako baldintzak betez. Bizikletak kendu eta gordailuan uzteko eskumena dute, baldin eta abandonaturik badaude edo, lotuta egonik, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatzen badute edo hiri-altzariak hondatzen badituzte.»

Horren harira, adierazi behar da udalerriak ahalmena duela, parametro horien barruan, ibilgailuak bere titulartasuneko bide publikoetan aparkatzeko modua arautzeko. Ahalmen diskrezional horrek nahitaez dakar berekin botere publikoa baliatzeko orduan inguruabar bereziak kontuan izatea, erabakia kasu zehatz bakoitzean egokia den edo ez erabakitzeko. Hala, erregelamenduak egiteko ahala izateak esan nahi du balizko hainbat irtenbideren artean bat aukeratu behar dela; hori bai, aukera horiek ezin dira formula finiko eta arautu hutsetara mugatu, baizik eta diskrezionalitateak ahalbidetutako teknikaren egokitasunaren estimazio subjektiboa bilatu behar dute.

Ordenantza hau, beraz, bete-betean sartzen da arau-sisteman bere edukari eta iza-pidetze-prozedurari dagokienez, eta ziurtasunerako eta segurtasunerako tresna izan nahi du eta herritar guztiengana iritsi.

Gardentasun-printzipioa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan (Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea) jasotako agindua betez, eta Ordenantzaren aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egin da, Udalaren web-atariaren eta barruti-kontseiluen bidez, etorkizuneko arauak potentzialki eragindako subjektu eta erakunde esanguratsuenek honako arlo hauen inguruan duten iritzia jasotzeko: a) ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak; araua onartzearen beharra eta egokitasuna; arauaren helburuak eta balizko ordezko irtenbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.



Gainera, proiektuaren oinarri diren ordenantzak Udalaren webgunean daude argitaratuta uneotan.

Azkenik, adierazi behar da, nahitaezkoa den bezala, ordenantza-proiektuaren hasierako onespeneraren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela, herritarrek egoki irizitako dokumentuak eta alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Behin betiko onartutakoan, ordenantzaren testu osoa aipatutako aldizkari ofizialean argitaratuko da.

Saiatu gara ordenantzaren edukia eskuragarria izan dadin, herritar guztiengana erraz irits dadin, agerikoa izan dadin, edozein unetan erraza izan dadin bertan jasotako arauak kontuan hartzea.

Efizientzia-printzipioa

Ordenantza honek administrazio-prozedurak eta izapide materialak laburbiltzen, sinplifikatzen eta arintzen ditu, betiere, segurtasun juridikoak eta herritarren bermeek ahalbidetzen duten arte. Horrenbestez, alferrikakotzat edo erredundantetzat jotako guztia ezabatzen du.

Gainera, ez du administrazio-karga edo karga osagarrikerik eragiten, eta, bere aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzen du.

Gorago aipatu den bezala, ordenantza honek arau-gorputz bakar batean bateratzen ditu honako hauek: (i) trafikoari eta aparkalekuari buruzko ordenantza (TAO/OTA), (ii) araututako kale-aparkamenduko sistema aplikatzeko lurralde-eremua arautzen duen ordenantza, (iii) Bilboko Eremu Intentsiboko ekipamendu-lurzoruetako egoiliarrentzako aparkalekuen ordenantza eta (iv) eta Egoiliarrei eta txandakako erregimenera bideratutako udal titulartasuneko aparkaleku-erakinak arautzeko ordenantza. Izan ere, tresna arauemaile horien guztien artean berezko lotura dagoela uste dugu, funtsean, ibilgailuak aparkatzera bideratutako espazioak arautzea da guztion helburua, izan kalean edo aparkalekuetan.

Araudi berri honek kontuan hartu ditu Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren (PMUS) printzipio gidariak, gure inguruan agertzen ari diren mugikortasun-ereduei erantzunak emateko asmoz.

Garrantzi handia du ordenantzan lurpeko udal aparkalekuetako partzelak erabili ahal izateko beste modalitate bat sartu izana: urteko emakida. Horri esker, izaera horretako partzelak erabiltzeko aukera ematen zaie, edozein arrazoi dela medio, partzelon epe ertaineko edo luzeko herri-jabariaren emakida baten titulartasuna eskuratu nahi ez dutenei.

Berrikuntza garrantzitsua da, halaber, partzela bat, baldintza jakin batzuetan, hainbat ibilgailuk erabili ahal izatea, baldin eta horien titularrak etxebizitza berean bizi badira.

Ondorio horietarako eta beste batzuetarako, Udalak ofizioz zuzenduko ditu administrazio publikoen artean erregistroak partekatze sistemak ezarri ondoren ezagutzen dituen aldaketak, noski, horrek ez du alde batera uzten kalean edo gaitutako espazioetan aparkatzeko bereizgarrien titularrek direnek beren baimenei eragin diezaieketen aldaketak jakinarazteko betebeharra dutela.

Ordenantza honen berritasunen artean, zehaztasun guzti-guztietan sartzeko asmorik gabe, honako hauek nabarmentzen ditugu: (a) Eremu Intentsiboaren eta Bizitegi Eremuaren arteko bereizketa egin da, jarduera-ordutegi desberdinak aurreikusiz araututako kale-aparkamenduko sistemarako; (b) sinplifikatu egin da kalean aparkatzeko bereizgarriak edo egoiliarrentzako aparkalekuetarako sarbidea eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa; (c) arrazionalizatu egin da kalean aparkatzeko bereizgarrien tipologia; (d) tarifa-sistema bereizi bat sortzen da ibilgailu ez-kutsatzaileentzat; (e) hiri-logistika hobetu da; eta (f) egoiliarrentzako aparkalekuetarako sarbidea izateko bigarren bide bat sortu da urteko emakidaren bitartez.

Azken batean, beti irrikatutako interes publikoa gauzatu nahi da, eta, hori, aztergai dugun gaian, kalean eta gaitutako espazioetan aparkatzeko dagoen espazio publikoa eskatzaile guztien artean modu arrazional eta ekitatiboan banatzean laburbiltzen da,



betiere, bide publikoan aparkatzeko plazen txandakatze erregularra bermatuz eta egoiliarren aparkalekuen erabilera bultzatuz.

Ordenantzak 82 artikulua ditu, bost titulutan banatuta; lau xedapen gehigarri; xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta hiru eranskin. Lehenengo tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira: ordenantzaaren xedea, ordenantza aplikatzeko lurralde-eremua eta eremu objektiboa, definizioak, printzipio gidariak, eta abar.

Bigarren tituluan, lur gaineko aparkalekua arautzen da: eremu berriak sortzen dira, bertakoei bideratutako araubidea orokor bihurtzen da, mugikortasun murriztua duten desgaituei buruzko artikulua aldatzen dira, eta, aurrerantzean, erabiltzen dituzten ibilgailuek gutxienez bi orduz aparkatu ahal izango dute gunea arautuetan. Zenbait ñabardurarekin, udal-zerbitzuetako enpresen araubidea, bisitariena eta aparkatzeko erreserben erregulazioa bere horretan geratzen dira. Era berean, aparkaleku-eremuetan zama-lanak egiteko arauak ezartzen dira.

Hirugarren titulua egoiliarrentzako aparkamendua arautzen du, lehen aipatutako berritasunarekin: partzela bat urte baterako eskuratzeko aukera sortu da, betiere epe hori luzatzeko aukerarekin. Horrela, egoiliarrentzako partzela bat eskuratzeko bigarren aukera bat sortu da, epe luzeagoko emakida bat nahi ez dutenentzat.

Era berean, eskualdatze-sistema aldatu da, eta Udalak titularren adostasunarekin partzelak erreskatatzeko aukera aurreikusi da.

Laugarren titulua ia aldaketarik izan ez duten txandakako aparkalekuei buruzkoa da. Bukatzeko, V. tituluan, arau-hausteen eta administrazio-zehapenen araubidea arautzen da.

Bosgarren tituluan, zehapen-erregimena ere jasotzen da. Eta horretarako, araututako kale-aparkamenduko sistema dagozkion arau-haustek eta zehapenak banakatu dira, baita lurpeko aparkaleku publikoei dagozkien arau-haustek eta zehapenak ere.

Lehenengo kasuan, araudi sektoriala dago: 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testuategia onartzen duena; eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra. Araudi sektoriala nahitaez bete behar da arau-haustek ezartzerakoan, baina horrek ez du eragozten lege-multzoko horretan generikoki jasotzen diren arau-hausteen zehaztapenak ezartzeko aukera.

Aitzitik, egoiliarrentzako lurpeko aparkalekuen arloan ez dago araudi sektorialik, eta, hortaz, udal-administrazioak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluak (139, 140. eta 141. artikulua) ematen dizkion ahalmenen babesean, egokitzen jotzen dituen arau-hauste motak ezar ditzake, titulu horretan ezarritako irizpideen arabera. Eta halaxe egin du, arau-haustek oso larriak, larriak eta arinen kategorietan sartzen saiatuz, irizpide horiek kontuan hartuta.

Horrela, oso larritzat jotako arau-haustek, Ordenantza honetako 79.3 artikuluan jasotakoak, azken lege horretan eta, zehazkiago, 1. apartatuan jasotako irizpideei erantzuten diete, honako letra hauetan zehazki: a) («Elkarbizitzaren nahasmendu nabarmena, hain zuzen beste pertsona batzuen lasaitasuna edo beren legeko eskubideez baliatzea larri, berehala eta zuzenean eragozten duenean, eta aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen era guztietako jardueren ohiko garapenari zein osasungarritasun edo apaindura publikoei eragiten dienean»); b) («Beste pertsonaren batek edo batzuk zerbitzu publikoren bat erabiltzeko eskubidea izan arren hori eragozte»); eta d) («Zerbitzu publikoren bateko ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo osagaiak larri eta nabarmen hondatzeko egintzak»).

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea Bilboko udalerrian aparkatzeko sistema publikoa arautzea da, honako bi modalitate hauetan:

- a) Kalean aparkatzea.
- b) Lurpeko aparkamendua.

2. artikulua. — Aplikazio eremua

Ordenantza honen aplikazio-eremua da bai, udalerrian zehar kalean aparkatzea bai, udalerrian dauden udal titulartasuneko eraikinetan aparkatzea.

3. artikulua. — Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honela ulertzen dira ondoko hauek:

- a) Kalean aparkatzea: bakar-bakarrik udal bide publikoetan egindakoak.
- c) Aparkalekua: ibilgailuak aparkatzeko gaitutako espazioa, normalean udalaren titulartasuneko eraikin bati dagokiona.
- c) Baimena: kalean aparkatzeko edo gaitutako espazio batean aparkatzeko baimena. Bereizgarri bat edo tiket bat izan daiteke.
- d) Bereizgarria: kaleko aparkamenduaren eta aparkalekuen erabiltzaileei emandako baimena, zenbait ezaugarri bereziren arabera, eta espazio horiek erabiltzeko gaitzen duena. Kontrakoa esan ezean, baimena eman den urtean zehar soilik egongo da indarrean.
- e) Tiketa: kalean edo gaitutako espazio batean aparkatzeko baimena, ibilgailu bat udal titulartasuneko aparkatzeko espazio bat denbora mugatu batean erabiltzeko gaitzen duena.
- f) Eremua: udalerria zatitzen den lurralde zati edo azalera. Hiru eremu daude: intentsiboa, bizitegikoa eta ordutegi-murritzetarik gabeko eremua. Horietako bakoitzak berariazko araubide bat du.
- g) Sektorea: eremu baten barruan dagoen espazioa, non erregulazio-baldintza espezifikoak arautiko diren (tarifak, ordutegiak, eta abar).
- h) Koadrantea: hiri-frakzioa, esparruaren berdina edo txikiagoa, egoiliarrei emandako kalean aparkatzeko bereizgarria baliozkoa den gunea izendatzeko balio duena. Koadranteak Ordenantza honi erantsitako plano batean jaso dira (II. eranskina).
- i) Esparrua: egoiliarrei kalean aparkatzeko gunea eta eskura dituzten udal-aparkalekuak esleitzeko balio duen lurralde-eremua.
- j) Aparkalekuaren eragin-eremua: aparkaleku jakin bat dagoen koadrantearen esparrua.
- k) Egoiliarra: udal-eroldaren arabera, koadrante baten barruan bizi den pertsona fisikoa.
- l) Bisitaria: Bilbon bizi ez den pertsona fisikoa edo juridikoa. Halaber, bisitaritzat hartzen da kalean aparkatzeko bereizgarria izanik esleituta duen esparrutik kanpo aparkatzen duen egoiliarra.
- m) Bizikideak: etxebizitza berean erroldatutako pertsonak.
- n) Erreserbak: ibilgailu jakin batzuentzat bakarrik gordetako espazioak eta kalean aparkatzeko lekuak; bertan aparkatzeko nahitaezkoa da dagokion baimena izatea.

**4. artikulua. — Ordenantza hau arautzen duten printzipioak**

Hauek dira gaitutako espazioetan eta kalean aparkatzeko sistemaren printzipio inspiratzaileak:

1. Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuna

Mugikortasun jasangarria da gaur egungo beharrak asetzeko gai dena, etorkizuneko baliabideak arriskuan jarri gabe. Egungo larrialdi klimatikoaren funtsezko alderdi bat da, eta administrazio publikoei eskatzen die, besteak beste, garraio-sistema deskarbonizatzea eta emisio kutsatzaileak murriztea bultzatuko duten kudeaketa-ereduak garatzeko.

Zenbait estrategia eta neurri ekonomiko eta sozial dauzka, hiri-espazioaren kalitatea lehengoratzeko helburua dutenak. Hartara, aparkatzeko lekuak erregulatzen dira, baliabide natural gutxien kontsumitzen dituzten eta ingurumen-kostu gutxien eragiten dituzten garraiobideak mesedetzeko moduan

Printzipio horretatik eratortzen da hiria bera gehien errespetatzen duten garraiobideak sustatzea: oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak bultzatzea, garraio publikoa (hirikoa eta hiriartekoa) ibilgailu pribatuaren aurretik lehenestea, gutxien kutsatzen duten ibilgailuen erabilera sustatzea, eta erabilera edo alokairu partekatutako ibilgailuen erabilera (car sharing) sustatzea.

2. Genero-ikuspegia

Bilboko Udalak aparkalekuen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan genero-berdintasunerako udal-politika txertatzea zainduko du, dagokion berdintasun-planetan islatuta dagoena, bai eta aplikatzekoa den araudi sektorialean ere.

Horri dagokionez, aparkalekuak eraikitzeke edo birgaitzeko proiektuek barne hartu beharko dute azpiegiturretan prebentzio-sistema jakin batzuk ezartzea, esaterako, gu-neak ondo argiztatzea, batik bat aparkalekuak eta irteteko bideak, eta ikusmen-oztoporik gabeak eta iristerrazak izatea.

Udalaren mugikortasun-politikarekin lotuta sortzen, zaintzen edo bultzatzen dituen erregistro edo datu-base guztietan, generoaren aldagaia sartuko du Udalak. Ibilgailuak aparkatzeko udal-titulartasuneko eraikinen barruan dauden komunikazio-elementu guztietan, genero-berdintasunerako udal-politikaren aurkako hizkerarik erabiltzen ez dela zainduko da.

3. Irisgarritasun unibertsala

Herritar guztiek espazio publikora sartzeko modua izatea sustatuko da, mugikortasun murriztua duten pertsonen udalerriko txoko guztietara ahalik eta baldintza onenetan iristea errazteko beharrezko neurriak hartuz eta hiriguneko erliebeak sortutako zailtasunak gaindituz. Azpiegituren edo zerbitzuen leku zehatzetara iristea zaildu eta, horrenbestez, desberdintasunak sortzen dituzten oztopoekin amaitzea ere sustatutako da.

4. Segurtasuna

Bide-diziplinaren bermatzaile den udal-agintaritzaren printzipioak araututako sistemak ezartzea, mugikortasunean bizikidetza-arauak betez eta betearaziz, segurtasun-maila handitzeko.

5. Moldakortasuna kudeaketan

Aparkalekura bideratutako hiriko espazio publikoa une bakoitzean dagoen eskaintza eta eskarira malgutasunez egokitzea ahalbidetuko duen sistema bat sustatzea, bai eta mugikortasun-modu berrietara ere, eraginkortasun operatiboarekin eta mugitzeko modu jasangarrienak erraztuz.

6. Erantzukidetasuna

Aparkatzea ibilgailuen titularren behar bat da (ordenantza honetako 25. eta 40. artikuluetan aipatzen dira), eta haiek ordaindu beharko lukete.



Ordenantza honen bidez, aparkatzera bideratutako espazio publikoa bezain urria den ondasun baten bidezko erabilera lortu nahi da.

7. Energia-efizientzia sustatzea

Udalak karga azkarreko puntuak instalatzea sustatuko du (elektrolindegiak), hiritik dabilzan ibilgailuek erabil ditzaten, EBko Itun Berdeak ezarritako helburuekin bat etorritik, karga-azpiegitura bat sortzeko

Era berean, Udalak karga-puntuak jarriko ditu udal-titulartasuneko aparkalekuetan, aparkaleku horien erabiltzaileek erabil ditzaten, bai urteko emakida-erregimenean, bai epe ertain eta luzeko emakidetan.

5. artikulua. — Araudi hau aplikatzen zaien ibilgailuak

1. Araudi honen mende daude bai araututako kale-aparkamenduko plazetan aparkatzen duten ibilgailu guztiak, 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, bai udal-titulartasuneko aparkalekuetan aparkatzen dutenak ere, 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta ibilgailuak duen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ingurumen-bereizgarriaren arabera, sailkapen hau ezarzen da:

2.1. Ibilgailu ez-kutsatzailea: 0 emisioen etiketak, Urdina eta Eco etiketa.

2.2. Ibilgailu kutsatzailea: C etiketa, berdea eta B etiketa, horia.

2.3. Ibilgailu oso kutsatzailea: bereizgarriko eskubiderik ez duten ibilgailuak.

3 Mugikortasun- eta jasangarritasun-politika berriak ezartzeko edo DGTren edo antzeko estatuko edo Europako erakundearen bereizgarri berriak aldatzeko, Alkatetzak, ebazpen baten bidez, sailkapen hori eguneratu ahal izango du. Ebazpen hori udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6. artikulua. — Bereizgarri kopuruaren mugak etxebizitzako

1. Udalak, gehienez ere, etxebizitza bakoitzeko bi bereizgarri eman ahal izango ditu lau gorpileko ibilgailuak aparkatzeko. Gehieneko kopuru horrek kaleko lur gaineko aparkamendua nahiz sestra azpiko aparkalekuetakoa hartzen ditu barnean, betiere, baldin eta etxebizitza berean bi ibilgailu desberdin badaude nagusi diren bi pertsona gutxienez erroldatuta badaude.

2. Etxebizitza bakoitzeko gehieneko bereizgarrien kopurua zenbatzeko, kontuan hartuko dira, era berean, etxebizitzan erroldatutako pertsona bakoitzak izan ditzakeen titulartasun pribatuko aparkaleku-partzelak, bizilekuaren eremuaren barruan, baldin eta bertan erroldatutako pertsonak partzelon % 50etik gorako zati alikuota baten jabe edo usufruktudun badira; horrela izanez gero, etxebizitza bakoitzeko bi bereizgarriaren gehieneko kopurutik kenduko litzateke partzela pribatuen kopurua.

3. Eskatuz gero, ziklomotor edo motozikleta batentzat hirugarren DAR egoiliarrentzako aparkaleku bereizgarri bat eman ahal izango da.

4. Bizikleta-partzelen bereizgarriak ez dira zenbatuko etxebizitza bakoitzeko bereizgarrien gehieneko kopuruaren ondorioetarako.

5. Matrikula bat ezin izango da egoiliarren kaleko aparkamenduko bereizgarri bati eta egoiliarren aparkaleku bereizgarri bati lotuta egon aldi berean.

6. Pertsona eta ibilgailu bakoitzeko DES kaleko aparkamenduko bereizgarri bakarra emango da.

7. artikulua. — Ezohiko egoerak

Salbuespenezko egoeretan (kutsadura atmosferikoa, larrialdiak, eta abar), Alkatetzak, arrazoitutako ebazpen bidez, eta aldi baterako eta salbuespenezko izaeraz, Ordenantza honetan jasotako egunak, orduak, eremuak, sektoreak eta tarifak kendu, murriztu edo gehitu ahal izango ditu.

**8. artikulua. — *Prezioak eta tasak***

Baimenen prezioak eta tasak arlo eskudunak onartutakoak edo ordenantza fiskaletan jasotakoak izango dira.

9. artikulua. — *Baimen motak*

1. Araututako kalean aparkatzeko eremuetan edo udal-titulartasuneko lurpeko aparkalekuetan aparkatzeko, erabiltzaileek aparkatzeko baimena lortu beharko dute, Udalak ezarritako tasak edo prezioak ordaindu ondoren, bestelakorik esan ezean.

2. Baimenak dira:

2.1. Erregimenen bereizgarriak, tipologia honetakoak izan daitezkeenak:

2.1.1. Egoiliar aparkalekuaren bereizgarria (DAR):

- a) Epe ertain-luzeko emakida-araubidean (DAR-C): 41. artikulua.
- b) Urteko emakida-araubidean (DAR-A): 50. artikulua.

2.1.2. Kalean aparkatzeko bereizgarria (DES):

- a) Car-sharing ibilgailua (DES-C): 33. artikulua.
- b) Egoiliar ibilgailua (DES-R): 26., 27. eta 28. artikulua.
- c) Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailua (DES-M): 32. artikulua.
- d) Udal-enpresen eta udal-zerbitzuen ibilgailua (DES-S): 34. artikulua.
- e) Profesional independenteen-autonomoen ibilgailua (DES-A): 35. artikulua
- f) Furgoneta (DES-F): 36. artikulua.
- g) Salgaien hiri-banaketako ibilgailua (DES-L): 37. artikulua.
- h) Enpresen flotako ibilgailua DUM (DES-D): 37. artikulua
- i) Baimen berezia duen ibilgailua (DES-E): 38. artikulua.
- j) Tasetatik salbuetsitako enpresa baten ibilgailua (DES-X): 39. artikulua.

2.2. Tiketak mota hauetakoak izan daitezke:

Udalak gehienez ere bi bereizgarri eman ahal izango ditu etxebizitza bakoitze-ko, lau gurgileko ibilgailuak aparkatzeko. Gehieneko kopuru horren barruan sartzen dira, bai lur gaineko aparkalekua, bai lurpeko aparkalekua, baldin eta bi ibilgailu desberdin badaude eta etxebizitza berean, gutxienez, adin nagusiko bi pertsona erroldatuta badaude.

- a) Bisitari tiketa (TV): bereizgarririk ez duten ibilgailuak (14.3 artikulua /29. artikulua).
- b) Furgoneta tiketa (TF): Bilbon diharduten furgoneta erregistratuak (14.3 eta 36. artikulua).
- c) Sektore arrosako tiketa (TR): sektore arrosara furgonetentzako DES-F bereizgarri berezirik gabe sartzen diren ibilgailuak (14.3 artikulua).
- d) Desgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko tiketa (TEPD): 30. artikulua.
- e) Ekologikoa (TECO) ibilgailu ez-kutsatzaileentzat: 31. artikulua.
- f) Eguneko tiketa (TD): profesional independenteak (35. artikulua).
- g) DUM tiketa (TCD): salgaien hiri-banaketa egiten duten ibilgailuak (18. eta 37. artikulua).
- h) Txandakako aparkamenduko tiketa (TPK): txandakako aparkaleku batean sartzen diren ibilgailuak (73. artikulua).
- i) Disuasio-aparkamenduko tiketa (TDS): disuasio-aparkaleku batean sartzen diren ibilgailuak (10. artikulua).

3. Baimenak euskarri fisiko edo birtualean eman ahal izango dira.

4. Ez da beharrezkoa bereizgarria edo tiketa ibilgailuan erakustea.

**10. artikulua.— *Aparkalekuen tipologia***

Bilboko udalerrian dauden aparkalekuak honako modalitate hauetakoak izan daitezke:

1. *Egoiliarren aparkalekuak*

Egoiliarrentzako udal-aparkalekuak udal-titulartasuneko edo hitzarmen bidez emakida-erregimenera parekatutako titulartasun pribatuko aparkaleku-eraikinak dira, egoiliarren ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen direnak, baldin eta DAR bereizgarria badute eta ordenantza honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Bertakoen aparkalekuen barruan, bizikletentzako aparkaleku seguruak ezarri ahal izango dira, bereizita, DAR-A bereizgarria duten bertakoen bizikletak aparkatzeko lurzati espezifikoekin.

2. *Txandakako aparkalekuak*

Erabilera publikoko aparkaleku-plazak hornitzera bideratutakoak dira. Erabilera erregimena aldi baterakoa edo txandakakoa da; behin beharrezkoa tiketa lortu ondoren, edozein erabiltzaile sar daiteke edozein plazatar, normalean, iraupen laburreko edo ertaineko egonaldiak.

3. *Aparkaleku mistoak*

Egoiliarren aparkalekuak eta txandakako aparkalekuak uztartzen dituzten aparkalekuak dira. Ahal den guztietan, bi espazioen arteko banaketa funtzionala ezarriko da. Bereizketa funtzionaltzat joko da txandakako aparkalekuetara sartzen diren ibilgailuak ez dabiltzanean solairu desberdinetan egoiliarren plazetara sarbide zuzena ematen duten guneetatik.

4. *Disuasio-aparkalekuak*

- a) Bilboko periferian daudenak dira, eta ibilgailu pribatuen Bilbora sartzen diren pertsonak aparkatzera eta zentrora garraio publikoan hurbiltzera animatzea dute helburu.
- b) Disuasio-aparkalekuak garraiobide publiko batekin edo gehiagorekin konektatuta daude.
- c) Aparkalekuok erabiltzeko tiketak (TDS) tarifa espezifiko bat du, aparkalekuaren inguruan eskuragarri dauden garraio publikoko sistemetako baten erabilera konbinatuarekin lotutakoa; horrela, Bilbo barruko mugikortasun iraunkorra sustatzen da.
- d) Aparkalekuotara sartzeko ordutegiak, tarifak eta baldintzak sortu zituzten Alkatezaren ebazpenen bidez zehaztu ziren.

11. artikulua.— *Ibilgailuak gaitutako espazioetan eta kalean aparkatzeko bereizgarriak eskatzea*

1. Ondorengoak dira egoiliar bereizgarria lortzeko baldintzak:

- a) Pertsona fisikoa izatea.
- b) Adinez nagusia izatea.
- c) DES bereizgarria eskatzen den koادرantean erroldatuta izatea, edo, bestela, DAR bereizgarria eskatzen den egoiliarren aparkalekua erreferentziatuta dagoen koادرanteren esparruan. Edo eskatzailearen etxebizitza aparkalekutik 400 metro baino gutxiagora egotea.
- d) Erroldako etxebizitzan ibilgailu bat edukitzea, hiru egoera hauetakoren batean:
 - a) Ibilgailua jabetzan izatea eta Bilboko Udalaren ibilgailuen gaineko zergaren erroldan hala jasota egotea. Baldintza honetan salbuespen bat dago, baldin eta eskatzailea, aseguruaren polizaren arabera, «degaitasuna duen pertsona baten aparkatze-txartela» duen eta gidabaimenik ez daukan pertsona baten ibilgailuaren ohiko gidaria bada. Betiere, bizikideak izan beharko dira biak».



- b) Ibilgailua renting edo leasing erregimenean izatea eta ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari gisa agertzea.
- c) Enpresak lagatako ibilgailua eta, DAR bereizgarri bat eskatuz gero, ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari gisa ageri dena.
- e) Fitxa teknikoaren sailkapenean honako zifra hauek dituen ibilgailua izatea:
Lehen bi zifrak:
 - 03 Bi edo hiru gurpileko ziklomotorra (DAR bereizgarrietarako bakarrik).
 - Lau gurpileko ziklomotorra, L6e-BP kategoriakoa.
 - 04 Bi gurpileko motozikleta (DAR bereizgarrietarako bakarrik).
 - 10 Turismoa.
 - 24 Furgoi/furgoneta: baimendutako gehieneko masa 3.500 kilo, gehieneko luzera 5,20 metro eta gehieneko zabalera 2 metro.
 - 30 Merkantzien garraiorako egokitutako turismoak: gehieneko luzera 5,20 metro eta gehieneko zabalera 2 metro.
 - 31 Ibilgailu misto moldakorrak: gehieneko luzera 5,20 metro eta gehieneko zabalera 2 metro.Azken bi zifrak:
 - 00 Zehaztu gabe.
 - 01 Mugikortasun urriko pertsona.
 - 02 Familiarra.
 - 33 Lur orotarikoa.
 - 40 Taxia.
 - 42 Autoturismoa.
 - 48 Etxebizitza.Mugikortasun eta iraunkortasun politika berriak ezartzeko, Alkatetzak, ebazpen bidez, kode horiek eguneratu ahal izango ditu. Ebazpen hori udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- f) Bereizgarriaren eskatzaileak, halaber, indarrean izan behar du Estatuan baliozkoa den gidabaimena. Gidatzeko administrazio-baimena aldi baterako eteteak ez du eragotziko bereizgarria eskuratzea.
Hala eta guztiz ere, ez da derrigorrezkoa izango gidabaimena izatea honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:
 - a) Ibilgailua duen pertsona gidabaimena duen pertsonaren etxebizitza berean bizitzea eta, hala badagokio, aseguruan ohiko gidari gisa agertzea
 - b) Ibilgailuaren titularra mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko Europako txartelaren titularra izatea eta DAR aparkalmendu bereizgarria eskatzea.
- g) Bilboko Udalarekin hartutako betebeharren ordainketak egunean izatea, bai zerga-arlokoak, bai beste edozein motatakoak, udal-administrazioaren zehatzeko ahala baliatzearen ondoriozkoak barne. Horretarako, ezingo da premiamendu-prozedurarik irekita eduki administrazio horrekin.
- h) Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko ibilgailuen eta gidarien erregistroetan agertzen den helbidea erroldatze-helbidearekin bat etortzea. Eskatzaileak dagokion eskabidea bete beharko du, honako agiri hauek erantsita:
- 2. Eskaerarekin batera, beharrezkoa denean, honako agiri hauek aurkeztuko dira:
 - a) Leasing edo renting kontratua eta enpresaren ziurtagiria, eskatzailea ibilgailuaren erabiltzaile bakarra dela eta ibilgailua lan-ordutegitik kanpo edukitzeko baimena duela adierazten duena, eta aseguru-poliza, eskatzailea gidari gisa agertzen dena, hala badagokio.



- b) Hala badagokio, «desgaitasuna duten pertsonen klean aparkatzeko txartela» eskatu behar da.
 - c) Udalak interesdunari eskatu ahal izango dio behar diren agiriak aurkezteko, behar bezala justifikatu ez den alderdi bat edo hasiera batean aurkeztutako agiriaren indarraldia egiaztatzeko beharrezkoa baderitzo.
3. Klean aparkatzeko bereizgarriak (DES eta DES-M) eta urteko emakida-arau-bideko aparkalekuenak (DAR-A) abian den urtea amaitu arte egongo dira indarrean. Hurrengo urteetako berritzeak automatikoak izango dira, ordenantzak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren.
4. Udalarekin hitzartutako aparkaleku pribatuetan, egoiliarrez gain, aparkalekuaren eragin-eremuan bulegoak dituzten titulartasun publikoko erakundeei ere eman ahal izango zaie sartzeko baimena, baldin eta beren eskumenak normaltasunez aurrera eramateko beharrezkoak direla justifikatzen badute eta, betiere, aparkalekuen arloan eskumena duen arloak aldeko txostena egiten badu.

12. artikulua. — Ordezko ibilgailua

- 1. Bereizgarria duen ibilgailua matxuratzen bada, urtean behin ordeztu ahal izango da ibilgailua, gehienez ere 15 egun naturaleko eperako; Udalaren baimena ez da behar-ko, baina, betiere, aldez aurretik jakinaraziko zaio aldaketa Udalari.
- 2. Urtebeteko epea igaro baino lehen denbora gehiago behar izanez gero, edo beste ordezkoi ibilgailu bereizgarri bat, Udalaren aldez aurreko baimena beharko da. Eskararekin batera, kaltetutako edo matxuratutako ibilgailua dagoen tailerrak luzatutako dokumentu bat aurkeztuko da, non utzitako ibilgailua ordezkoi ibilgailua dela adierazten duen.

II. TITULUA**KALEAN APARKATZEA****I. KAPITULUA****SISTEMAREN DESKRIKAPEN OROKORRA****1. ATALA****ESPASIOAREN ANTOLAMENDUA****13. artikulua. — Klean aparkatzeko eremuak**

- 1. Araututako kale-aparkamenduko sistemaren ondorioetarako, udal-titulartasuneko edo -kudeaketako kaleak lehentasunezko hiru eremutan banatuko dira:
 - a) Eremu Intentsiboa: Txandakatze eskari handia du ezaugarri.
 - b) Bizitegi Eremua: Txandakatze eskaera txikiagoa du.
 - c) Ordu-murrizketarik gabeko eremua.
- 2. Artikulu honetan definitutako eremuak Ordenantza honen I. eranskinean zehaztutakoak dira, eta Alkatetzaren ebazpen bidez aldatu ahal izango dira. Ebazpena Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- 3. Eremu horietako bakoitzarentzako tarifa-araubide eta ordutegi bereziak ezarri dira.

14. artikulua. — Klean aparkatzeko sektoreak

- 1. Klean aparkatzeko eremuetan hainbat sektore mota ezarri dira, bakoitzean aplikatu beharreko kaleko aparkamendu kudeaketaren arabera bereizita, eta behar bezala mugatuta eta adierazita, bide-marren eta/edo seinale bertikalen bidez.
- 2. Sektore eta eremu bakoitzean, aparkatzeko gehieneko denbora bat, tarifa zehatz bat eta xedapen espezifiko batzuk arautu ahal izango dira.



3. Kale-aparkamenduko sektore motak honakoak dira:
- 3.1. Txandakatze sektorea. Urdina.
- a) Sektore honetan, bisitariak gehienez hiru orduz aparkatu ahal izango dute, bai Eremu Intentsiboan, bai Bizitegi Eremuan, eta bisitari-tiketa beharko dute.
 - b) Aparkatzeko erositako denbora amaituta, bisitarien ibilgailuak dauden eremutik irtengo dira, eta ezin izango dute berriro bertan aparkatu laurogeita hamar minutu igaro arte.
 - c) Sektore honetan, bertakoek 27. artikuluan jasotako izaera izango dute.
- 3.2. Egoteko sektorea. Berdea.
- a) Sektore honetan, bisitariantzako gehieneko aparkaldia hiru ordukoa izango da Eremu Intentsiboan; eta bost ordukoa, Bizitegi Eremuan; bisitari-tiketa beharko da.
 - b) Aparkatzeko erositako denbora amaituta, bisitarien ibilgailuak eremutik irteten beharko dira, eta ezin izango dute berriro bertan aparkatu laurogeita hamar minutu igaro arte.
 - c) Sektore honetan, egoiliarren kaleren aparkatzeko bereizgarria duten ibilgailuak, beren eremu espezifikoari dagokiona, ordu-mugarik gabe eta tiketa lortu beharrik gabe aparkatu ahal izango dira.
- 3.3. Egun erdiko sektorea. Kolore berdea, L.
- a) Sektore hauek bizileku-eremuan baino ez daude. Beraietan, bisitariak MD txartela eskuratu beharko dute eta, tarifa egokia ordaindu baino lehen aparkatzeko aldi luzeena goizeko ordutegia (9:00-13:30) edo arratsaldekoa (15:00-19:00) izango da.
 - b) Eskuratutako denbora amaitutakoan, ibilgailua eremutik atera beharko da, eta bi ordu igaro arte ezingo du bertan berriro aparkatu.
 - c) Sektore hauetan, euren lurralde-eremuan aparkatzeko bereizgarria duten egoiliarren ibilgailuak ordu-mugarik gabe eta tasarik ordaindu gabe aparkatu ahal izango dira.
 - d) Sektore hauetan, emisio urriko ibilgailuak aparkatu ahalko dira, tasa egokia ordainduta eta aurreko apartatueta ezarritakoa betez.
- Horretarako, TECO tiketa eskuratu behar dute.
- 3.4. Erabilera anitzeko erreia. Gorria.
- Bide-zati bat da, eta, ordutegi-tartearen arabera, hainbat erabilera baimentzen dira bertan (kaleren aparkatzea edo zama-lanak), seinaleztapen bertikaleren adierazitakoaren arabera.
- 3.5. Sektore libre. Zuria.
- Kaleko aparkamendu libreko sektorea, dagokion udal-ordenantzan xedatutakoaren arabera erabiliko dena.

15. artikulua. — Kaleren aparkatzeko esparruak

Araututako eremuan barruan, egoiliarrei esleitutako esparrua beraien bizilekuaren kokapenaren arabera izango da. Esparrua egoiliar-bereizgarri bakoitza zein kaletan den baliozkoa zehazteko balio du. Aparkatzeko esparruak III. eranskinean jasotzen dira, eta Alkatetzaren ebazpen bidez aldatu ahal izango dira. Balizko ebazpen hori Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.



2. ATALA

APARKATZEKO ERRESERBAK**16. artikulua. — Erreserbak erabiltzeko baldintzak**

1. Erreserbak dira ibilgailu edo pertsona jakin batzuentzat bakarrik gordetzen dira kalean aparkatzeko espazio eta plazak, betiere, noski, nahitaezko baimenarekin gaitutakoak.

2. Erreserben erabilera eskusiboa iraunkorra izan daiteke edo zenbait ordu eta egunetara mugatuta egon daiteke, eta kalean aparkatzeko gehieneko denbora ere adieraz daiteke erreserbotan.

3. Erreserbatutako guneak hiriko barruti guztietan egon daitezke, eta, ezarritako ordutegiaren barruan, atal honetan jasotako aginduen mende daude. Ordutegi horretatik kanpo, erreserbatutako kaleko aparkamenduko plazak kokatuta dauden eremuaren eta sektorearen barruan daude, eta, beraz, bertako araudi espezifikoaren mende.

17. artikulua. — Mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbak

1. Erreserba horiek honako hauek baino ezin dituzte erabili:

- a) DES-M bereizgarria duten ibilgailuak, egun osoz zero tasarekin aparkatu ahal dutenak; horretarako, hori bai, dagokion tiketa ateratzea beharrezkoa da.
- b) «Desgaitasuna duten pertsonen kalean aparkatzeko txartel» baten titularra den herritar baten joan-etorri baterako erabilitako ibilgailu bisitaria. Ibilgailua bi orduz aparkatu ahal izango da, zero tasarekin; horretarako, hori bai, TEPD tiketa ateratzea beharrezkoa da. Denbora horretatik kanpo, bisitarien araubidea beteko da, 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- c) Erreserba egindako esparruan baliagarria den egoiliar-bereizgarria duen ibilgailua, betiere, titularrak «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» egin zaion pertsonarekin bizi bada, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

18. artikulua. — Zamalanetarako erreserbak

1. Zamalanetarako gaitutako erreserbak bide publikoan behar bezala seinaleztatuta daude, eta erreserban bertan berariaz adierazitako ordu-tarteetan zamalanak egiten ari diren bi eserlekuko ibilgailu mistoek (ez turismoek), furgonetek eta kamioiek soilik erabili ahal izango dituzte. Egunaren gainerako orduetan, erreserbek dauden eremuan eta sektorean indarrean dagoen araubidea jarraitzen dute.

2. Erreserba bakoitzean gehienez ere ordu erdiko egonaldia egin daiteke. Justifikatu eta egiaztatutako salbuespenezko kasuetan, aldez aurretik denbora jakin baterako baimena lortu ahal izango da (37. artikulua.- DES-L bereizgarria). Denboraren kontrola ezarriko den sistema mekaniko, informatiko edo telematikoaren bidez egingo da.

3. Erreserbotan aparkatu ahal izateko DUM (TCD) tiketa ateratu behako da, 30 minutuko denbora-tarte bakarretarako. Zamalanetarako gune bat erabiltzen den bakoitzean, dagokion tiketa lortu beharko da.

4. Zamalanetarako erreserba bat erabili ondoren, ibilgailuak izango du berriro bertan aparkatu laurogeita hamar minutu igaro arte. Hori bai, eremu bereko zamalanetarako beste edozein erreserba erabili ahal izango du.

19. artikulua. — Elektrolineren erreserbak

1. Auto elektrikoak kargatzeko gaitutako erreserbak bide publikoan behar bezala seinaleztatuta daude, eta ibilgailu horiek bakarrik erabili ditzakete.

2. Kargatzen ari den bitartean, ibilgailua erreserbatutako gunean aparkatuta egon ahal izango da, eta, amaitutakoan, ibilgailua mugitu egin beharko da.

3. Aipatutako ibilgailuek itzaroteko plazak erabili ahal izango dituzte, hori bai, kargatzeko plaza okupatuta dagoenean bakarrik.

4. Seinale espezifikoetan kontraktorik adierazi ezean, erreserbak ez dute ordutegi-mugarik eta, erabiltzeko, TECO tiket ekologikoa lortu behar da.

**20. artikulua.— Aldi baterako erreserbak**

1. Aldez aurretik eskaera justifikatua eginez gero, Udaleko arlo eskudunak kalean aparkatzeko aldi baterako erreserbak baimendu ahal izango ditu, egun bateko edo gehiagoko aldi mugatu baterako, bai partikularrei mudantza puntualak egiteko, bai beren jarduera profesionalagatik hala eskatzen duten eta urteko baimenik ez duten enpresei (mudantzak, zerbitzu teknikoak, muntatzaileak, eta abar).

2. Departamentu horrek berak kalean aparkatzeko urtebeteko baimena eman ahal izango du. Enpresa onuradunak behar besteko aurrerapenaz emango die baimena jaso izanaren berri nolabaiteko eragina jasan dezaketen udal-zerbitzuei.

3. Aldi baterako erreserbak seinalatzeko baldintzak arlo eskudunak zehaztuko ditu.

21. artikulua.— Beste erreserba batzuk

1. Kalean aparkatzeko erreserbak dira, halaber:

- a) Autobus- eta taxi-geltokiak.
- b) Anbulantzientzako erreserbak.
- c) Motozikletentzako eta bizikletentzako erreserbak.
- d) Erakunde ofizialentzako erreserbak.
- e) Kontsulatuentzako erreserbak
- f) Hotelentzako erreserbak.
- g) Asistentziatzako erakundeentzako erreserbak.

2. Erreserbotako bakoitza erabiltzeko baimena duten ibilgailuak seinale bertikale-tan jasotakoak izango dira, edo, halakorik ezean, ematen den administrazio-baimenean jasotakoak.

3. Kontrakoa adierazi ezean, erreserbak iraunkorrak dira; beraz, ez dute ordute-gimugarik, eta erabiltzaileek ez dute tiketik atera behar.

4. Erreserbon kudeaketa Zirkulazioko Udal Ordenantzak arautzen du.

5. Interes publikoko arrazoiak daudenean, Udalak beste erreserba batzuk ezarri ahal izango ditu ibilgailu jakin batzuentzat, aparkamenduaren gaineko eskumena duen arloak aldeko txostena egin ondoren. Erregulazioa sortzen dituen Alkatetzaren ebazpe-nean zehaztuko da.

3. ATALA**SISTEMAREN EZAUGARRIAK****22. artikulua.— Ordutegiak**

1. Kalean aparkatzeko zerbitzuaren ordutegia honako hau izango da:

- a) Eremu Intentsiboa: astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 09:00etatik 20:00etara, eta, lanegunak diren larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara.
- b) Bizitegi Eremua: astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 09:00etatik 19:00etara. Hori bai, eguerdian, 13:30etik 15:00etara, zerbitzua etengo da.

2. Kalean aparkatzeko zerbitzua ez da inoiz indarrean egongo honako kasu hauetan:

- a) Uztaileko eta abuztuko larunbatak.
- b) Abuztuko arratsaldeak.
- c) Ostiralak jaiegunak diren osteko larunbatak.
- d) Jaiegunak.
- e) Abenduaren 24a eta 31, 14:00etatik aurrera.



3. Alkatetzaren ebazpen arrazoitu bidez aldatuko dira ordutegiak eta beraien indarraldia eremu eta esparru guztietan. Ebazpenok Udalaren webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

23. artikulua.— *Kalean aparkatzeko bereizgarriak*

1. Kalean aparkatzeko bereizgarriak dira Bilboko Udalari aldeztu aurretik eskatuta interesdunari ematen zaizkien baimen espezifikoak. Honako datu hauek jasotzen dituzte:

- a) Bereizgarri mota identifikatzeko kodea.
- b) Ibilgailuaren matrikula.
- c) Kalean aparkatzeko esparrua, aparkatzeko baimena baliozkoa den lekua mugatzeko balio duena.
- d) Indarraldia, besterik adierazi ezean, aurtengo urtea izango da, DES-R eta DES-M bereizgarrietan izan ezik; izan ere, horiek balioz gabe diren arte egongo dira indarrean. Printzipioz, bereizgarriak ematea arrazoitu zuten arrazoiak mantentzen diren bitartean egongo dira indarrean.
- e) Ordu-muga, hala badagokio.

2. Interesdunak ibilgailua kalean aparkatzeko bereizgarria berritzea urtero eskatu beharko du, egoiliarren ibilgailuen (DEA-R) eta mugikortasun urriko egoiliarren ibilgailuen (DEA-M) kasuan izan ezik, horiek ofizioz berrituko baitira, baimena emateko baldintzak mantentzen direla egiaztatu ondoren.

3. Udalak interesdunari eskatu ahal izango dio beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak aurkez ditzala, behar bezala justifikatzen ez den edozein alderdi egiaztatzeke, edo hasieran aurkeztutako dokumentuak indarrean direla egiaztatzeke.

4. Eskatzaileak dagokion ordenantza fiskalean ezarritako tasa ordaindu beharko du.

5. Kalean aparkatzeko bereizgarriaren titulartasunak ez du esan nahi aparkatzeko espazio liberrik dagoenik, aparkatu nahi den unean dagoen erabilgarritasunaren araberakoa izango baita.

6. Bereizgarria eman den lurralde-eremurako baino ez da baliagarria, eta gainerakoetan ez da eraginkorra.

7. Salbuespenezko kasuetan, eta Alkatetzaren ebazpen bidez, egoiliarrek aparkatzeko bereizgarriak ezarri ahal izango dira urtebetetik beherako indarraldiarekin, Udalak eragindako inguruabar bereziengatik beren garajeetara sartu ezin diren pertsonak beraien ibilgailuak araututako kale-aparkamenduko sistemaren lurralde-eremuaren barruan aparka ditzaten. Bereizgarri horiek ez dute tasarik sortuko.

24. artikulua.— *Baldintzak aldatzea*

Aparkatzeko bereizgarrien titularrek nahitaez jakinarazi behar dute, gehienez ere 15 eguneko epean, ibilgailuen titulartasunarekin, jabearen bizilekuarekin eta bereizgarriok ematerakoan kontuan hartutako gainerako datu eta inguruabarrekin lotuta izandako edozein aldaketa.

25. artikulua.— *Kalean aparkatzeari buruzko araudia bete behar duten ibilgailuak*

Kalean aparkatzeari buruzko erregulazioa bete behar dute araututako espazioan aparkatzen duten ibilgailu guztiek, honako hauek izan ezik:

- a) Bi eta hiru gurpileko bizikletak, motozikletak eta ziklomotorrak, eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak.
- b) Segurtasun Indarren ibilgailu ofizialak, zerbitzua ematen ari badira.
- c) Taxiak, gidaria bertan badago eta zerbitzua ematen ari bada.
- d) Anbulantziak, baldin eta Osakidetza edo beste osasun-erakunde publiko batzuenak badira edo lan egiten badute, eta zerbitzua ematen ari badira.
- e) Suhiltzaileen ibilgailu ofizialak, behar bezala identifikatuta, zerbitzua ematen ari badira.



- f) Larrialdietarako ibilgailuak, behar bezala identifikatuta badaude eta larrialdi egoera batean badaude.
- g) Hileta-autoak, zerbitzuan daudenean.

II. KAPITULUA**ARAUTUTAKO KALEKO APARKALEKUEN ERABILERA****1. ATALA****EGOILIARREK KALEAN APARKATZEA****26. artikulua.— Egoiliar bereizgarria eskatzea (DES-R)**

Egoiliar bereizgarriaren eskaera Ordenantza honetako 11. artikuluan ezarritakoa bez-
tez egin behar da.

27. artikulua.— Kalean aparkatzeko egoiliar bereizgarria erabiltzea

1. Kalean aparkatzeko egoiliar bereizgarriak baimendutako ibilgailua, denbora-mu-
garik gabe, baimena eman den esparruko sektore berdeetan aparkatzeko gaitzen du.
2. Bereizgarria eman den esparruko sektore urdinak, larunbatetan aparkatzeko
ahalmena ematen du, tiket beharrik gabe. Sistema funtzionamenduan den gainerako
egunetan, hasi eta ordubetera arte (10:00) eta zerbitzuaren azken orduan zehar (18:00ak
Bizitegi Eremuan eta 19:00ak Eremu Intentsiboan). Araututako kale-aparkamenduko
zerbitzuaren gainerako orduetan, bereizgarriaren titularrak bisitaria balitz bezala ordain-
du beharko du tasa.

28. artikulua.— Mugikortasun urriko Europako txartela duten egoiliarrak

1. Kalean aparkatzeko egoiliar bereizgarrien titularrek, «desgaitasuna duten per-
tsonentzako aparkatzeko txartela» ere baldin badute, sektore berdeetan kokatutako mu-
gikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako plazak ere erabili ahal izango dituzte.
2. Sektore urdinetan dauden plaza erreserbatuetan, Ordenantza honetako 27.2 ar-
tikuluan xedatutakoa beteko da.

2. ATALA**BISITARIEK KALEAN APARKATZEA****29. artikulua.— Bisitari tiketa**

1. Ordenantza honetan araututako kale-aparkamenduko espazioak erabiltzeko, bi-
sitariek tiketa atera beharko dute, baldin eta bestelakorik xedatzen ez bada.
2. Tiketa gaitutako gailuetako batean lortuko da, eta datu hauek jasoko ditu, bes-
teak beste: baimendutako muga-ordua eta denbora, ibilgailua zein eremu eta sektoretan
dagoen, data, eta ibilgailuaren matrikula.
3. Hasieran kontratatutako denbora amaitu baino lehen, sistemak kalean aparka-
tzeko denbora luzatzea ahalbidetzen du, tiketaren eremuan eta sektorean baimendutako
gehienekora arte.
4. Kontratatu den denbora luzatu ahal izango da hura amaitu ondorengo hamabost
minutuetan.

**30. artikulua.— Kalean aparkatzeko desgaitasuna duten pertsonen txartelaren titu-
larrak (TEPD tiketa)**

1. Ibilgailuren batean bidaiariren bat «desgaitasuna duten pertsonentzako aparka-
tzeko txartelaren» titularra bada, tasa espezifikoa (TEPD tiketa) duen tiket bat lortu ahal
izango da, kalean aparkatzeko edozein eremutan aparkatzeko gaitzen duena, mugikor-
tasun urriko pertsonentzako aparkatzeko erreserbak barne. Tasa hori zero izango da
lehenengo bi orduetan. Aparkatzeko gainerako denboran, ibilgailuak bisitari erregimen-
aren pareko baldintzak izango ditu.



2. TEPD tiketa luzatu ahal izango da, eta, kasu horretan, bisitari-tasa aplikatuko da.
3. Tiket hori lortzeko, horretarako prestatutako gailuan (parkimetroa, aplikazioa edo beste), ohiko datuez gain, matrikula-zenbakia eta «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren» zenbakia sartu beharko dira.
4. Tiketa ibilgailuaren aurrealdeko panelaren gainean jarri beharko da, kanpotik ikusteko moduan.

31. artikulua.—Zero emisioko ibilgailuak (Tike ekologikoa - TECO). Ibilgailu ez-kutsatzaileak

1. Ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera ez-kutsatzaile gisa sailkatutako ibilgailuentzat tarifa propioa sortu ahal izango da; hala ere, dauden eremu eta sektoreko ordutegi-mugen mende egongo dira.
2. Ibilgailuontzat tarifa propioa sortu ahal izango da; hala ere, ibilgailuok dauden eremuko eta sektoreko ordutegi-mugen mende egongo dira.
3. atala.Kalean aparkatzeko beste modu batzuk

32. artikulua.—Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuen bereizgarria (DES-M)

1. Erregimen hau jabeek gidatzen dituzten ibilgailuei aplikatuko zaie.
2. Bereizgarri honek baimena ematen dio titularrari mugikortasun urriko pertsonentzako kaleko erreserbetan aparkatzeko, egun osoa eta zero tasarekin. Era berean, bereizgarri honek araututako kale-aparkamenduko eremu osorako balio du, eta titularrari baimena ematen dio araututako kale-aparkamenduko sistemako edozein sektoretan bi orduz zero tasarekin aparkatzeko; horretarako, hori bai, dagokion tiketa atera beharko du. Epe hori igarotakoan, dagokion tasa ordaindu beharko du, hori bai, ez da egongo sektorearen denbora-mugaren mende.
3. Bereizgarri hau lortu ahal izango du mugikortasun murriztua duen pertsona fisikoak, baldin eta gidatzen duen ibilgailuaren jabea bada eta baldintza hauek guztiak oso-osorik betetzen baditu:
 - a) Ibilgailua pertsona fisiko batena izatea edo haren izenean leasing edo renting kontratu bat izatea. Ondorio horietarako, ibilgailuaren jabetzat hartuko da Pro-bintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean hala jasota dagoena.
 - b) Ibilgailuaren jabeak «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» izatea indarrean, edo autonomia-erkidego bakoitzean edo Europar Batasuneko herrialde bakoitzean baliokidea den txartela.
4. Kalean aparkatzeko mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuen bereizgarria lortzeko, 11. artikuluan jasotako baldintzak bete beharko dira, erroldatzea izan ezik, eta, artikulua horretan adierazitako agiriez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:
 - a) «Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» edo horren baliokidea autonomia-erkidego bakoitzean, eskatzailea desgaitasuna duen mugikortasun urriko pertsona dela egiaztatzen duena.
 - b) Estatuan baliozkoa den indarreko gidabaimena.
5. Kalean aparkatzeko mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuen bereizgarriaren indarraldia bat etorriko da bertan adierazten den urte naturalarekin.
6. Bereizgarri bakarra emango da pertsona eta ibilgailu bakoitzeko. Pertsona bat hainbat ibilgailuren titularra bada, horietako batentzat bakarrik eskatu ahal izango du bereizgarria.

33. artikulua.—Aldi baterako alokairuko edo partekatutako ibilgailuak (DES-C)

1. Aldi baterako alokairuko edo alokairu partekatutako ibilgailuak, baldin eta, gainera, ibilgailu ez-kutsatzailearen sailkapena badute ordenantza honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, normalean lurrazaleko aparkatze-sektoreetan aparkatuko dira.



2. Aldi baterako edo partekatutako car-sharing modalitateko alokairuko ibilgailuek urtero lortu behar dute kalean aparkatzeko DES-C bereizgarria.

3. Ibilgailuon erabiltzaileek ez dute tiketik atera beharko. Bai ibilgailuon kaleko aparkamenduon kudeaketa bai ordaindu beharreko tasen kobrantza, zerbitzuaren enpresa titularrarekin egindako hitzarmenen bidez ezarriko dira.

34. artikulua. — Udal-enpresen eta udal-zerbitzuen ibilgailuen bereizgarriak (DES-S)

1. Udal-zerbitzuetako enpresen ibilgailuak kalean aparkatzeko bereizgarria emango zaie Bilbon zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten eta behar bezala identifikatuta dauden enpresen ibilgailuei, baldin eta zerbitzu horiek emateko zuzenean esleituta badaude.

2. Bereizgarria hau duten ibilgailuek kale-aparkamenduko eremuan aparkatu ahal izango dute, artikulua honetan adierazitako baldintzetan.

3. Ibilgailu batentzat bereizgarria lortzeko baldintza hauek bete behar dira:

a) Ibilgailua zerbitzua ematen duen kontratistarena, Udalarena edo zerbitzua emateko azpikontratutako enpresa batena izatea, edo leasing edo renting erregimenen izatea. Ondorio horietarako, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean hala jasota dagoena hartuko da ibilgailuaren jabetzat.

b) Ibilgailua udal-titulartasuneko zerbitzu publiko bat eskaintzera zuzenean atxikita egotea, legeetan aurreikusitako zuzeneko edo zeharkako kudeaketa-moduren batean, eta, Mugikortasuneko eta Iraunkortasuneko Arloaren iritziz, bereizgarri hori behar izatea.

c) Ibilgailua behar bezala identifikatuta egotea kanpoaldean.

d) Eskatzaileak ez izatea ordaindu gabe Ordenantza honen arau-hausteengatik zehapenik, Bilboko Udalak bere titulartasuneko edozein ibilgailuri administrazio-bidean emandako ebazpen irmo bidez ezarritakoak.

4. Interesdunak edo haren ordezkariak eskatu beharko du bereizgarria, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako bideetako batetik, ibilgailua Bilboko zerbitzu publiko bati atxikita dagoela eta zerbitzu horren izena egiaztatzen duen agiria erantsita.

5. Oro har, bereizgarriaren balioa kale-aparkamendu sistemako eremuan osora hedatzen da, salbu eta bereizgarrian bertan eremu, koadrante edo sektore jakin batzuetarako muga espezifikoak ezartzen ez badira.

6. Bereizgarria dagokion zerbitzuaren berezko lanak egiten ari direnean baino ez da eraginkorra, inoiz ez da baliagarria etenik gabe aparkatzeko.

7. Indarraldia urtebetekoa izango da, non eta bereizgarriak ez duen beste epe laburrago bat ezartzen.

8. Bereizgarrian honako datu hauek jaso behar dira:

a) Identifikazioa, dagokion kodearekin.

b) Ibilgailuaren matrikula edo, halakorik ezean, kontrol-digituak.

c) Balio-aldia.

d) Erabilera-orduen tartea, bereizgarria ordu jakin batzuentzako mugatuta badago.

e) Zein eremu, esparru eta sektoretan den baliagarria, bereizgarria espazioan mugatuta badago.

35. artikulua. — Profesional independenteak-autonomoak (DES-A/Eguneko tike-ta-TD)

1. Zaharberritzeetan, konponketa lanetan, mantentze lanetan eta antzeko zereginetan profesionalki aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoek, behar bezala erregistratuta badaude eta zamalanetarako guneak erabili ezin badituzte, beren egonaldia 30 minututik gorakoa izango delako, sektore berdeetan aparkatu ahal izango dute, 14. artikuluan aipatzen diren ordutegi-mugarik gabe. Horretarako, DES-A bereizgarriaren titularrak izan



beharko dute, eta eguneko tiketa (TD) atera beharko dute; tiket hori ateratzen den eremuan soilik izango da baliozkoa.

2. DES-A bereizgarria lortzeko, Udaleko araututako kale-aparkamenduko zerbitzuaren bulegoan Eguneko Tiket Tarifaren Erregistroan izena emateko eskatuko da.

3. Bereizgarriok eskura ditzaketen profesionalen tipologia Alkatetzaren ebazpen bidez arautu ahal izango da. Ebazpenok udalaren webgunean argitaratuko dira.

36. artikulua. — Furgonetak (DES-F/TF tiketa)

1. Lan egiteko furgoneta bat erabili behar duten eta behar bezala erregistratuta dauden pertsona fisiko eta juridikoek bi ibilgailu aparkatu ahal izango dituzte hurrenez hurren sektore arrosan. Horretarako, DES-F bereizgarria lortu beharko dute, eta, horretarako sortuko den tasa ordaindu ondoren, dagokion tiketa (TF) atera beharko dute; tiket hori ateratzen den eremuan eta esparruan soilik izango da baliozkoa.

2. Bereizgarriok lor ditzaketen profesionalen tipologia Alkatetzaren ebazpen bidez arautuko dira. Ebazpenok udalaren web-orrian argitaratuko dira.

3. DES-F bereizgarria lortzeko, Furgonetentzako Bereizgarriaren Tarifen Erregistroan izena emateko eskatu beharko da, Udaleko araututako kale-aparkamenduko zerbitzuaren bulegoan. Bilbon diharduten edo bizi diren pertsona fisiko eta juridikoak bakarrik erregistratu ahal izango dira.

4. TF tiketa lortzeko, prezio bakarreko tasa bat ordainduko da, eta egun osoan aparkatu ahal izango da. Tiketak, hala badagokio, bi matrikulak jaso beharko ditu. Ibilgailuetako bat furgoneta bat izango da, eta baimendutako bi ibilgailuek ezin izango dute aldi berean aparkatu edo bi plaza desberdin hartu.

37. artikulua. — Salgaien hiri-banaketa (DES-L eta DES-D bereizgarriak/DUM tiketa eta TCD)

1. Zamalanetarako guneak erabiltzeko baimena duten ibilgailuek gehienez 30 minutuz aparkatu ahal izango dute bertan. Hala ere, Udalak ibilgailu jakin batzuei baimena eman ahal izango die erreserba horiek epe luzeagoetarako okupatzeko, DES-L bereizgarria emanez.

2. Bereizgarri hori lortzeko, salgaien hiri-banaketako ibilgailuentzako bereizgarriaren tarifa-erregistroan (DUM) inskribatzeko eskatu beharko da, Udaleko araututako kale-aparkamenduko zerbitzuaren bulegoan. Bereizgarriok baliogabetu ahal izango dira, baldin eta, Udalaren iritziz, haien beharra amaitu bada.

3. DUM-TCD tiketa (18.3 artikulua) zamalanak egiteko ere erabili ahal izango da, ibilgailua xede horretarako erreserbetatik kanpo aparkatuz, sektore urdinean eta berdean. Kasu horietan, ezingo da bisitari-tiketa lortu eremuko edozein tokitarako, harik eta laurogeita hamar minutu igaro arte.

4. Flota ez kutsatzailea duten zamalanetako enpresek urtero lortu ahal izango dute aparkatzeko gailua (DES-D); horrela, beren ibilgailuek ez lukete tiketik eskuratu beharko. Kaleko aparkalekuon kudeaketa Alkatetzaren ebazpen bidez zehaztuko da.

38. artikulua. — Baimen berezia duten ibilgailuen bereizgarriak (DES-E)

1. Aurrekoek gain, salbuespenezko kasuetan eta kasuan kasuko jardueraren interes publikoa kontuan hartuta, baimen berezia duten ibilgailuentzako aparkaleku-bereizgarri bat eman ahal izango da, aparkalekuen arloan eskumena duen arloak aldeko txostena egin ondoren.

39. artikulua. — Tasetatik salbuetsitako enpresaren bereizgarriak (DES-X)

1. Araudi, hitzarmen edo beste arrazoi batzuegatik udal-tasak ordaintzetik salbuesita dauden enpresek DES-X bereizgarria eskatu ahal izango dute.

2. Titularrak ez daude behartuta bisitari-tiketa eskuratzera erregulatutako sektore berde eta urdinetan aparkatzeko. Horren orde, TX tiketa eskuratu beharko dute, doan.

3. Aparkatzeko baldintzak bisitarien zatiaz ezarritako berberak izango dira (29. artikulutik 31. artikulura).

**III. TITULUA****EGOILIARRENTZAKO UDAL APARKALEKUAK****40. artikulua. — *Aparkalekuetako partzelen tipologia*****1. *Banakako partzelak***

- a) Lau gurpileko ibilgailu batek bakarrik erabil ditzakeenak dira.
- b) Etxebizitza bakoitzak mota horretako bi partzela izan ahal izango ditu gehienez, betiere DES bereizgarriren bat ez badu eta etxebizitzan gutxienez, adin nagusiko bi pertsona erroldatuta badaude eta bi ibilgailu badituzte.
- c) Ibilgailuen tamaina dela eta, plaza bakar batean lau gurpileko ibilgailu bat, motozikleta bat eta bizikleta bat aparka badaitezke, aldi berean erabili ahal izango dute plaza hori.

2. *Mugikortasun urriko pertsonentzako partzelak (PMR)*

- a) Partzelok mugikortasun urriko «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen» titularrentzat edo txartel hori duen pertsonaren kargura dauden eta etxebizitza berean bizi direnentzat dira.
- b) Lehenetsuna emango zaie ibilgailu egokitua duten eskatzaileei, beren kargura pertsonak dituztenen aurretik.

3. *Motozikletentzako partzelak*

- a) Partzelok aparkalekuaren eragin-eremuan bizi diren ziklomotor, motozikleta eta hiru gurpileko automobilen titular diren egoiliarrentzat dira.
- b) Etxebizitza berean bizi diren pertsonak aldi berean erabili ahal izango dituzte lau gurpileko automobil baten ohiko bi partzela eta motozikletarako partzela bat, garaje berean edo etxebizitzaren eremuko beste batean.
- c) Edonola ere, aparkaleku-bereizgarrien gehieneko kopurua ezin izango da hiru baino handiagoa izan, etxebizitzan lau gurpileko automobil-partzelak eta motozikleta-partzelak aldi berean badaude.

4. *Bizikletentzako lurzatiak*

Lurzati horiek bizikleta-erregistroan alta emandako bizikletak aparkatzeko izango dira (Bizikletaren aldeko Hirien Sareko bizikleta-erregistroko sistema), hala eskatzen duten eta aparkalekuaren eragin-eremuan bizi diren pertsonentzat. Lurzati horiek ez dira zenbatuko etxebizitza bakoitzeko gehienez eman daitezkeen bereizgarrien kopuruari dagokionez. Bizikletentzako lurzatiak energia-efizientziari buruzko ordenantza honen 4.7 artikuluan xedatutakoa bete ahal izateko eran diseinatuko dira.

5. *Partzela bikoitzak*

- a) Lau gurpileko bi ibilgailuk aldi berean erabil ditzaketenak dira, eta, horretarako, titularrek DAR bereizgarria izan beharko dute.
- b) Etxebizitza bakoitzak partzela bakarra eduki ahal izango du, baldin eta duen partzela bikoitza bada, baina, horrez gain, DES bereizgarri bat ere izan ahal izango du.
- c) Etxebizitza batean partzela bikoitza badago eta ibilgailu bakar batek erabiltzen badu, partzela horren neurriengatik, ez da beste partzela baterako eskubiderik izango, partzela bikoitz baten erabilera bi bereizgarri edukitzearen baliokidea dela ulertzen baita.
- d) Udalari dagokio udal-aparkalekuko eraikin bakoitzaren inbentarioan bikoitz gisa hartu behar diren partzelak katalogatzea.

**I. KAPITULUA****ESKUBIDEAK ESKURATZEA****1. ATALA****HERRI-JABARIKO ARAUBIDEA****41. artikulua. — Herri-jabariko emakida epe ertain-luzera (DAR-C)**

1. DAR-C baimenari esker, emakidak irauten duen bitartean (20, 40, 50, 75 urte edo beste bat), aparkaleku-partzela erabil daiteke, baldin eta emakidak irauten duen bitartean partzela horretan sartzeko betekizunak eta baldintzak betetzen badira.

2. Emakidaren xede den plaza hainbat ibilgailuk erabili ahal izango dute, betiere titularrak etxebizitza berean bizi badira. Kasu horretan, ibilgailu titular bat eta gehienez baimendutako hiru ibilgailu egongo dira, eta DES bereizgarria izan dezakete.

3. Partzelari lotutako etxebizitzan bizi den norbaitek edo batzuek ez badute betetzen partzela erabiltzeko baldintzaren bat, ofizioz erregularizatuko dira emakidaren baldintzak, eta erabilera baldintza guztiak betetzen dituzten egoiliarrei eta lotutako ibilgai-luei mugatuko zaie.

4. Baldintzaren bat betetzen ez duena emakidaren titularra bada, bere egoera erregularizatu beharko du, bai emakida etxebizitza berean bizi den eta baldintza guztiak betetzen dituen beste pertsona bati eskualdatuz, bai emakida aparkalekuko itxarote-zerrendan lehen postuan dagoen pertsonari eskualdatuz. Bere borondatez egiten ez badu, prozedura ofizioz hasiko du Udalak, legez ezarritako prozeduraren arabera.

5. Herri-jabariko emakida arautuko da atal honetan, emakida-pleguetan eta herri-administrazioen titulartasuneko ondasunen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, eskuratutako eskubideei dagokienez.

6. Epe ertain edo luzerako emakidei dagokienez, partzelaren herri-jabariko emakidaren gaineko bi pertsonaren titularkidetasuna onartuko da. Pertsona horiek, ados jarrita, administrazio-jarduketak nork egingo dituen izendatuko dute, eta pertsona hori izango da partzela behar bezala erabiltzearen erantzulea. Izendapen hori egiten ez bada, ofizioz egingo da, lehenengo abizenaren hurrenkera alfabetikoaren arabera.

7. Herri-jabariko emakidaren eskualdaketa, titulartasun-aldaketa, trukea eta abar bi titularkideek eskatu beharko dute, hala badagokio.

8. Aurreko zenbakian esandakoak ez die kalterik egingo titularkideei dagozkien eskubide zibilei edo beste edozein eratakoei.

42. artikulua. — Herri-jabariko emakidaren prezioa

1. Aparkaleku-partzelen eskatzaileek ordaindu beharko duten zenbateko ekonomikoa partzela-tipologiaren eta dagoen solairuaren arabera izango da.

2. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako partzelen prezioa ohiko plazen berdina izango da; ezingo da handiagoa izan partzelak azalera handiagoa izateagatik.

3. Emakida-kontratua arautzen duten baldintza ekonomiko-administratiboen agiri-tan, garaje-partzelen gaineko herri-jabariko emakiden lehen esleipenek bete beharreko ordainketa-formulak ezarriko dira.

43. artikulua. — Emakidak borondatez eskualdatzea

1. Herri-jabariko emakida administrazio-ebazpen bidez eskualdatuko da.

2. Emakidadun batek bere aparkaleku-partzela eskualdatu nahi duenean, horretarako prestatutako formularioan eskatu beharko du, eta une horretatik aurrera ezin izango dio uko egin eskualdatzeari. Partzelaren erabilgarritasuna «itxarote-zerrendako» lehen postuan dagoen pertsonari jakinaraziko zaio.

3. Lehenengo postuan dagoen pertsonak ezezkoa ematen badu, zerrendan hurrengora pasatuko da, eta zerrendatik berehala baztertuko da, edo eskaera aldatzeko eskatuko zaio, baztertzeari eragin duen aldaketaren bat badago (solairua, partzelaren tipologia, eta abar).



4. Udalak, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Arloaren bitartez, behar diren mekanismoak ezarriko ditu partzelaren prezioaren ordainketa haren gaineko herri-jabari-ko emakidaren eskualdatzailearen eta eskuratzzailearen arteko loturarik gabe egin dadin.

5. Eskualdaketa hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, alderdi interesdunek udal-ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erosleak egindako ordainketaren egiaztagiria bidali beharko du aldez aurretik, eta, ondoren, eskualdaketa udal-bulegoetan formalizatuko da, horretarako onartutako administrazio-agiria sinatuta. Emakidaren titularra agertzen ez bada edo, agertuta, eskualdaketa formalizatzeari uko egiten badio, Udalak emakida erreskatatu eta ofizioz eskualdatuko du.

6. Bilboko Udalak lehentasunez erosteko eskubidea du partzelen gaineko herri-jabari-ko emakiden eskualdatzei dagokienez. Eskubide hori egikaritzuz gero, ebazpena emango da, eta eragindako herritarrei jakinaraziko zaie; horiei emakidaren prezio eguneratua ordainduko zaie, 45. artikuluan ezarritako formularen arabera.

7. Egoiliarren partzelen eskualdaketak ordenantza honetako 11. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoen alde bakarrik egin ahal izango dira. Hala ere, xurgatze edo bat-egite bidezko sozietate-azkentze kasuetan, sozietate irenseleari edo emaitzari sozietate titularraren egoera juridikoan subrogatzeko aukera emango zaio, betiere, xurgatzea edo azkentzea egiaztatzen bada merkataritza-erregistroaren ziurtagiriaren bidez.

44. artikulua. — Emakidak nahitaez eskualdatzea

1. Emakida esleitzeko eman ziren baldintzak aldatzen direnean, eskatutako baldintzak ez betetzeko moduan, titularrak «itxaron-zerrendako» lehenari transmititu beharko dio.

2. Nolanahi ere, emakida honako kasu hauetan eskualdatu beharko da:

- a) Titularraren heriotza, baldintzak betetzen dituen oinordekorik edo legatu-hartzailerik gabe.
- b) Bizilekua aparkalekuari lotutako koadrante batetik kanpo lekualdatzea, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari kalterik egin gabe.
- c) Partzela erabiltzeko ohiko ibilgailurik ez izatea.
- d) Banantze edo dibortzioagatik, ezkontzaren ondasun-eraentza irabazpidezkoa bada, eta ezkontide batek ere ez baditu betetzen partzelaren titulartasunari eusteko baldintzak.
- e) Etxebizitza saltzea; kasu horretan, eskuratzzaileak lehentasunezko eskubidea izango du «itxarote-zerrendan» dauden pertsonen aldean. Eskubide hori bi hilabeteko epean baliatu beharko da, ondasun higiezinaren salerosketa-eskritura formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Eskualdatzeko betebeharra duen alderdiak ez badu parte hartzen, dagokion zehapen-prozedura hasiko da, eta horrek ez du eragotziko titular berria izan behar duenaren alde eskualdatzea. Eskualdatzearen prezioa Udak Diruzaintzan gordailutuko da, eskualdatzailearen eskura.

4. «Itxaron-zerrendan» hirugarren pertsonarik ez badago, eskualdaketa eskatu duenak bere posizio juridikoari eutsi beharko dio, harik eta emakida eskuratzeko interesa duen pertsonaren bat agertzen ez den arte; eskualdaketa pertsona horren alde egin beharko litzateke. Bitartean, eta eskualdaketa gauzatu arte, titularraren ekimenez, interesdun bat lokalizatuta; edo udalaren ekimenez, egoiliar batek aldez aurretik eskatuta, lurtatua erabiltzen jarraitu ahal izango du titularrak.

45. artikulua. — Partzelaren eskualdaketa-aren prezioa

1. Partzelaren gaineko herri-jabari-ko emakidaren eskualdatze-prezioa eskualdatzearen unean indarrean dagoena izango da, eta alderdiek ezin dute aldatu. Eskualdatze-prezioak hileroko eguneratuko ditu Bilboko Udalak.



2. Inolaz ere ez da eskualdaketa prezia librean egitea baimenduko.
3. Egoiliarren partzelen gaineko emakida-eskubideen bigarren eta hurrengo eskualdatzeetan aplikatuko den kalkulu-formula honako hau izango da:

$$P_n = K P_o (1 - N/E) \ln/I_o$$

Non:

- K 1. balioko faktorea da, salbu eta kontratazio-organo eskudunak berariaz onartzen badu merkatuko balioaren eta formularen kengarriaren artean sor daitezkeen aldeak murrizten dituen balio handiagoa.
- P_n emakidaren n hilabeteko plazaren prezioa da.
- P_o aparkalekua martxan jartzen den unean plazak duen prezioa da.
- N aparkalekua zerbitzuan jarri zenetik igarotako emakida-hilabeteen kopurua da.
- E da emakidaren epe osoa, hilabetetan.
- I_n da kontsumoko prezioen indize ofiziala emakidaren n hilabeteen.
- I_o da aparkalekua martxan jartzen den unean dagoen kontsumoko prezioen indize ofiziala da.

46. artikulua. — Titulartasuna aldatzea

1. Titulartasuna aldatu ahal izateko, pertsona batek ordenantza honetako 11. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, eta, gainera, hauetako bat:
 - a) Ezkontideak/izatezko bikoteak izatea, edo odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko harremana izatea, lerro zuzenean, hirugarren mailara arte.
 - b) Bizileku berean gutxienez sei hilabeteko antzinasunarekin errolatuta egotea.
2. Era berean, partzelaren titularra hiltzen bada, titulartasuna aldatu ahal izango da haren jaraunsearen alde, betiere arauz eskatzen diren baldintzak betetzen baditu eta hala egiaztatzen badu.
3. Emakidaren titularra hiltzen bada, jaraunspen-eskubideak dituztenek titulartasuna aldatzeko eskatu beharko dute, gehienez ere sei hilabeteko epean, haren izaera egiaztatzen duen dokumentazioan agertzen denaren alde (testamentua, abintestato jaraunseak deklaratzeko autoa, nabaritasun-akta, eta abar).

47. artikulua. — Emakida trukatzeari

1. Emakidak elkarren artean trukatu ahal izango dira, baldin eta emakidadun bik edo gehiagok hala eskatzen badute.
2. Arau orokor gisa, trukea borondatezkoa da, eta ebazpen berean ebatziko da. Trukatzaileak subrogatuko dira trukearen ondoren titular diren emakiden eskubide eta betebeharretan.
3. Irisgarritasun-arrazoiak edo behar bezala egiaztatutako interes publikoko beste arrazoi batzuk daudenean, Udalak, ofizioz, partzela bat trukatu ahal izango du, baldin eta partzela horren kokapena eta ezaugarriak egokiak badira mugikortasun urriko pertsonentzako partzela berriak sortzeko edo proiektatutako jarduketa gauzatzeko, Ordenantza honen 57. artikuluan ezartzen den bezala.

48. artikulua. — Titulartasuna trukatzeko eta aldatzeko prozedura

Titulartasun-aldaketak eta emakiden trukea prozedura sinplifikatu baten bidez izapidetuko dira, baldin eta emakidaren egungo eta etorkizuneko titularrak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

49. artikulua. — Emakida azkentzea Emakidaren epemuga eta berreskuratzea

1. Egoiliarren udal aparkalekuetako partzelen gaineko herri-jabariko emakida iraungitzen da haren epea amaitzen denean.



2. Berreskuratu delako ere iraungitzen da, honako kasu hauetan:
 - a) Emakidaren titularrak ordenantza honetako 11. artikuluan jasotako baldintzaren bat ez betetzea edo galtzea.
 - b) Udal-interes publikoko obrak egiteko edo zerbitzu berriak ezartzeko beharragatik, baldin eta partzelaren gaineko eskubideak, osorik edo zati batean, egikaritzea eragozten badute.
 - c) Mugikortasun-politikak sustatzeko eta aparkalekuaren eskaintza publikoa eraginkortasunez kontrolatzeko beharragatik, ondasun urria egoiliarren artean modu orekatuan banatu ahal izateko, kaltetuek eskubideak eskuratuta dituztenean izan ezik.
 - d) Ordenantza honetan tipifikatutako arau-haustea behin eta berriz egiteagatik, ordenantza honen 80. artikuluan jasotako kasuetan.
 - e) Bi aldean adostasunez. Kasu hori soilik aplikatuko da aparkalekuaren arloan eskumena duen arloaren aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa dagoenean.
3. Horretarako aurrekontua ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko, eskaeren erregistro-ordena lehenetsiko da, salbu eta behar bezala egiaztatutako arrazoiak badaude: gizarte-interesa, mugikortasuna, iraunkortasuna, eta abar.
4. Herri-jabariko emakiden berreskurapena gauzatzeko, Udalak lehentasunez erosteko eskubidea izango du, eta eskubide hori erabiltzeko, lehen esan bezala, aurrekontu-erabilgarritasuna beharko da.

2. ATALA

URTEKO HERRI-JABARIKO EMAKIDAREN ARAUBIDEA

50. artikulua.—*Emakida urteko herri-jabariko emakida-erregimenean, hileko ordainketarekin (DAR-A)*

1. Udal titulartasuneko partzelak egoiliarren esku jarri ahal izango dira denbora gutxirako (urtebeterako), Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
2. Emakidaren xede den plaza hainbat ibilgailuk erabili ahal izango dute, betiere titularrak etxebizitza berean bizi badira. Kasu horretan, ibilgailu titular bat eta gehienek baimendutako hiru ibilgailu egongo dira, eta DES bereizgarria izan dezakete.
3. DAR-A urteko herri-jabariko emakida urte naturalen arabera egingo da. Berri-tzeak automatikoak izango dira, betiere udalak egiaztatu ondoren egoiliarren ordenantzak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela, salbu eta alderdietako batek kontrakoa adierazten badu indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago. Hala ere, urteko emakida baten titularrak emakida suntsiarazteko eskatu ahal izango du urtea amaitu baino lehen, baldin eta interesdunak badaude aparkalekuaren itxarote-zerrendan erregistratuta. Eskaera behar besteko aurrerapenarekin aurkeztuko da Udalean, emakida titular berriari helarazi nahi zaion eguna baino lehen, ahalik eta lasterren izapidetu dadin eta dagokion ordainagiria kobratu ez dadin.

51. artikulua.—*Herri-jabariaren urtebeteko emakida baldintzatua mugikortasun murriztuko partzeletan*

1. Mugikortasun urriko plazak eskatzen dituzten egoiliarrik ez badago, «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» ez duten egoiliarrei eskaini ahal izango zaizkie, baina baimen horiek baldintza suntsiarazlearen pean emango dira, zeina desgaitasunen bat duen egoiliar baten eskaera dagoen unean gauzatuko baita, hasierako titularrarentzako kalte-ordainik edo konpentsaziorik gabe. Hala ere, emakidaren titular berriak kargua uzten duen titularrari itzuliko dio, hala badagokio, ordaindu duen eta hartu ezin izan duen denborari dagokion zati alikuota.
2. Horrelako emakida bat baino gehiago egonez gero, antzinasunaren alderantzizko zentzuan ebatziko da.



3. Partzelok inola ere ezin izango zaizkie laga epe ertain eta luzerako herri-jabari-ko emakida (DAR-C) erregimenean «desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» ez duten pertsonen edo ezaugarri hori betetzen duen pertsona baten kargu ez dauden pertsonen.

52. artikulua. — Herri-jabariaren urtebeteko emakidaren prezioa

1. Urteko herri-jabari-ko emakidaren prezioa kasuan kasuko baimenean une bakoitzean zehaztutakoa izango da, eta honako formula hau aplikatuz aterako da:

$$P_n = P_{des} / (K \cdot Z)$$

Non:

- P_n hileko partzelaren prezioa da.
- P_{des} Eremu Intentsiboaren edo Bizitegi Eremuaren DES-R bereizgarriaren urteko tasaren zenbatekoa da, aparkalekuaren kokapenaren arabera.
- K da 1 balioa duen indizea banakako partzelentzat eta PMR partzelentzat, eta goranzko edo beheranzko zuzenketa aplikatzen zaio, kasuan kasuko partzela ti-pologiaren arabera:
- Partzela bikoitzak: 0,7.
- Motorren partzelak: 2,5.
- Bizikleten partzelak: 10.
- Z da 1 balioa duen indizea, non eta kontratazio-organo eskudunak ez duen bera-riaz onartzen aparkalekuren batean balio handiagoa edo txikiagoa, merkatuaren balioaren eta formularen kengarriaren artean sor litezkeen aldeak murrizteko.

2. Era berean, emakidaren berritze automatikoetan, prezioa urtearen hasieran egu-neratuko da, DES-R tasen balio argitaratuaren eta, hala badagokio, aparkalekuaren Z indizearen arabera.

53. artikulua. — Aparkalekuetatik ibilgailuak kentzea

Ohartarazi egingo da ibilgailu bat kendu egin behar dela garaje-partzela libreki era-biltzea edo aprobetxatzea eragozten badu, edo instalazioen barruan modu irregularrean badago; beraz, horretarako ezarritako epea igaro ondoren, Herritarren Segurtasunerako Arloari eskatuko zaio kentzeko.

3. ATALA**APARKALEKUETAKO ITXARON-ZERRENDAK KUDEATZEA****54. artikulua. — Itxaron-zerrendan sartzea**

1. Aparkaleku bati lotutako itxaron-zerrendan izena emateko, ordenantza honetako 11. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

2. Itxaron-zerrendan izena emateko, eskabidea jaso den hurrenkera hartuko da kontuan, aurreko atalean ezarritakoaren arabera. Eskaerak etxebizitzaren esparruan dauden aparkalekuetako bat edo batzuk jaso ahal izango ditu, eta, horien barruan, epe laburreko edo ertain-luzeko emakida baterako eskaera, edo biak, mota bakoitzeko par-tzelen erabilgarritasunaren arabera.

3. Zerrendan izena emateak ez du inolako eskubiderik sortzen eskatzailearen alde. Soilik esan nahi du Udalak eskaeraren baldintzak betetzen diren ala ez aztertuko duela zerrendan sartzeko hurrenkeran.

4. Eskatutako erregimenean aparkalekurako sarbidea emateko, ordenantza hone-tan ezarritako baldintzak bete beharko dira horretarako tokia dagoen unean.

5. Egoiliarren aparkalekuetako partzeletara sartzeko, lehentasun-eskubidea izango dute honako hauek, hurrenkera honetan:



- a) «Desgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkatzeko txartela» dutela egiaztatzen dutenak.
- b) Txartela duen pertsona bat bere kargura duela egiaztatzen dutenak.
- c) Lurzatia ibilgailu ez-kutsatzaile batek erabiliko duela egiaztatzen dutenak ordenantza honen 5. artikuluan adierazitakoaren arabera. elektriko.
- d) Herri-jabariko emakida erregimenean aparkaleku berean partzela bat dutenak eta, erosi beharreko partzela, desberdina bada tipologiari, tamainari edo solairuari dagokionez.
- e) Beste udal-aparkaleku batean partzela bat dutenak eta, bizilekua lekuz aldatzea-gatik, aparkaleku hori bizitegi-eremu berritik kanpo geratzen bada.
- d) eta e) idatz-zatietan jasotako kasuetan, titular diren herri-jabariko emakida eskualdatzeko eskatu beharko da aldez aurretik.

6. Itxaron-zerrendatik kanpo geratuko da egoiliarren partzela bati lotutako etxebizitza baten erosleak egindako eskaera, eta, beraz, haren eskuratzailerak emakida eskualdatzeko eskatu ahal izango du, baldin eta aurreko titularrak ere hala egiten badu eta eskaera gehienez ere bi hilabeteko epean aurkezten bada, higiezinaren salerosketako eskritura publikoa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

55. artikulua. — *Itxaron-zerrendaren aldaketak: behin betiko bajak*

Itxaron-zerrendan daudenek udal-garajeko partzelaren gaineko eskubideen titular izateko eskatzen diren baldintzak mantendu beharko dituzte, eta Udalari jakinarazi beharko diote baldintza horien edozein aldaketa. Itxaron-zerrendan» dauden eta udal-araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzeari uzten dioten pertsonak zerrenda horretatik kanpo geratuko dira, eta zerrenda horiek une oro eguneratuko dira udalaren web-orrian, hargatik eragotzi gabe ofizioz edo alderdi batek eskatuta egin daitezkeen zuzenketak.

4. ATALA

EGOILIARREN APARKALEKUAK KUDEATZEA

56. artikulua. — *Eskubideen titularren erkidegoa*

1. Behin zerbitzuan jarrita, aparkalekuak kudeatzea erkidegoen eskumena da soil-soilik, hargatik eragotzi gabe Udalari dagozkion ahalmenak, ekipamenduen titularra den aldetik.

2. Erkidegoak, gutxienez, lehendakaritza bat izan beharko du, hura ordezkaria dezan, bai eta administrazio bat ere. Biek ala biek, baita komunitate horretako zuzendaritza-erakundeko beste edozein pertsona ere, Udalaren aurrean identifikatuta egon beharko dute. Erkidegoak jakitera eman beharko ditu erkidegoko administrazioaren nortasuna, helbidea eta beste komunikazio bide batzuk, hirugarren interesdunek aparkalekuaren funtzionamenduari buruzko kontsultak edo kexak egin ahal izan ditzaten.

3. Administrazio-lanak egiten dituenak finka-administratzailearen titulua edo balio-kidea izan beharko du nahitaez. Ezin izango dute administratzaile gisa jardun aldez aurretik beste erkidego batean lan egin dutenak, baldin eta udalak zehapena ezarri badio haren administrazioarekin lotutako betebeharrak ez betetzeagatik.

4. Administrazioa duenak betebeharrak hauek izango ditu udalarekiko:

- a) Egiten diren batzordeen deialdiak formalki jakinaraztea, eta haien akten edukia helaraztea. Urtean behin, gutxienez, Ohiko Batzar Orokorra egingo da, kontuak eta urteko aurrekontua onartzeko eta, hala badagokio, erabiltzaileen erkidegoko gobernu-organoak berritzeko.
- b) Komunitateko kideen zerrenda aurkeztea, eta, hala badagokio, mantentze-gastuei aurre egiten dieten kideena.
- c) Aparkalekuaren mantentze- edo kudeaketa-lanekin lotutako pertsona fisiko edo juridikoen identifikazioa aurkeztea, bai eta horiek lotzen dituzten kontratuen kopia ere.



- d) Nahitaezkoak diren baimenak eskatzea eta mantentzea.
- e) Kalteen eta erantzukizun zibileko aseguruaren kontratuaren kopia aurkeztea.
